



"Nire Karpeta" herritarren karpeta

Zer da Nire Karpeta?

"Nire karpeta" herritarren eta erakunde eta/edo entitateen eremu pertsonalizatua da, Eusko Jaurlaritzarekin duten harremanari dagokionez.

Funtzionaltasunak

- Pertsona interesduna den prozedura guztietako espedienteen izapidetze-egoeraren jarraipena egitea.
- Espediente bakoitzean egindako izapideen jarraipena eta izapideen data.
- Espedienteetako dokumentu elektronikoak eskuratzea eta deskargatzea.
- Komunikazio eta jakinarazpenetarako sarbidea.
- Pertsonak Administrazioaren esku dauden komunikazio- eta jakinarazpen-datuak ezagutzea, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen mugei kalterik egin gabe.
- Zehazten diren administrazio-ziurtagiriak lortzea.

Erabilera oneko betebeharrak

Interesdunak identifikazio-sistemak behar bezala erabiltzen direla ziurtatu beharko du, eta herritarren karpetara bere kabuz edo baimendutako pertsona batek bakarrik sartzen dela zaindu beharko du.

Nor sar daiteke Nire Karpetan?

Interesduna edo, hala badagokio, haren ordezkaria.

Nola sar daiteke Nire Karpetara?

Nire Karpetara sartzeko, modu seguruan identifikatu behar da onartutako identifikazio elektronikoko bitarteko baten bidez.

Helbide elektronikoa: www.euskadi.eus/nirekarpeta